

## **PARTE HARTZEKO ARAUDI OROKORRA BILBAO EXHIBITION CENTRE, S.A**

### **I.- AZOKETAN PARTE HARTZEA**

1. art.- Parte hartzeko eskaera
2. art.- Baldintza ekonomikoak
3. art.- Parte hartzeko eskaera onartzea
4. art.- Ez onartzearen ondorioak
5. art.- Espazioen esleipena
6. art.- Erakusketariak uko egitea
7. art.- Erakusketariaren betebeharrak
8. art.- Ez betetzearen ondorioak
9. art.- Erakusketarientzako zerbitzuak
10. art.- Azokaren katalogoa / Erakusketarien direktorioa
11. art.- Aduanak
12. art.- Argazkiak, filmazioak eta publizitatea
13. art.- Azokan hirugarrenek parte hartzeko baldintzak
14. art.- Jabetza intelektuala
15. art.- Data aldaketa, deialdia bertan behera uztea edo etetea

### **II.- SEGURTASUN ARAUDIA ETA LANEKO ARRISKUAK**

16. art.- Istripuen prebentzioa
17. art.- Sarbideak eta komunikabideak
18. art.- Norbera babesteko ekipamenduak
19. art.- Arrisku elektrikoak
20. art.- Ordena eta garbitasuna
21. art.- Arrisku bereziak
22. art.- Eskuko tresnak
23. art.- Makinak
24. art.- Lanak alturan
25. art.- Jasotzea eta garraioa
26. art.- Oinarrizko prebentzio-neurriak
27. art.- Jokabidea istripu eta larrialdietan

- 28. art.- Erakusketariaren konturako langileak
- 29. art.- Debequatuta dauden jarduerak
- 30. art.- Esleitutako espaziora mugatzea
- 31. art.- Erakustaldiak
- 32. art.- Erakusketariaren erantzukizun eksklusiboa
- 33. art.- Aseguruak
- 34. art.- Azoka barrutiaren zaintza

### III. MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ARAUDI TEKNIKOA

- 35. art.- Aurreko izapideak erakusketarientzat
- 36. art.- Aurreko izapideak muntatzaileentzat
- 37. art.- Segurtasun araudia
- 38. art.- Muntatzea
- 39. art.- Eraginkortasuna
- 40. art.- Muntatzeko ordutegia eta Sarbideak
- 41. art.- Muntatze/ekitaldi/desmuntatze faseetan ibilgailuak sartu eta egotea
- 42. art. Merkantziak sartzea/birjartzea
- 43. art.- Bilgarri hutsak
- 44. art.- Desmuntatzea
- 45. art.- Material motak
- 46. art.- Standak eraikitzea eta apaintzea
- 47. art.-Diseinu libreko standak eraikitzea eta apaintzea
- 48. art.- Sabaien instalazioak
- 49. art.- Aireko egiturak
- 50. art.- Hormak, zutabeak eta zoruak
- 51. art.- Sabaira ainguratzea (rigging)
- 52. art.- Konexioak
- 53. art.- Erakusketa
- 54. art.- Araudi tekniko-elektrokoa

### IV.- BESTE XEDAPEN BATZUK

- 55. art.- Erreklamazioak
- 56. art.- Datu pertsonalen babesa
- 57. art.- Legedi aplikagarria eta jurisdikzioa

## **I.- AZOKETAN PARTE HARTZEA**

### **1. art.- Parte hartzeko eskaera**

Erakusketari izan ahal izateko, alde zuzenetik parte hartzeko eskaera aurkeztu beharko da Azokaren Zuzendaritzara, eta hark azoka burutu aurretik eskaera onartu beharko du.

Parte hartzeko eskaera azokaren eredu ofizialaren bidez egin beharko da, azokaren Berariazko Araudian zehazten diren baldintzekin bat. Azoka batean parte hartzeko eskaera aurkezteak berarekin dakar Parte Hartzeko Araudi Orokor hau eta azokaren Berariazko Araudia osorik onartzea.

Parte hartzeko eskaerarekin batera, izena emateko eskubidea ordaindu beharko da, eta baita gordailua eman ere, kasu bakoitzean, azoka bakoitzaren Berariazko Araudian zehaztuta egongo dena. Ez da kontutan hartuko betebeharrak hau betetzen ez duen onarpen eskaerarik.

### **2. art.- Baldintza ekonomikoak**

Parte hartzeko prezioa eta ordainketa modua azoka bakoitzaren Berariazko Araudian zehaztuko dira.

### **3. art.- Parte hartzeko eskaera onartzea**

Eskaerak onartzea Azokaren Zuzendaritzaren eskumen eskusiboa da. Azokaren Zuzendaritzak eskubidea du azokan parte hartzeko eskaerak baztertzeko, baldin eta horiek azokan parte hartzeko beharrezko baldintzak betetzen ez badituzte. Parte hartzeko eskaera baztertzeko bada, idatziz jakinaraziko zaio eskatzaileari, eta arrazoiak ere eskainiko zaizkio.

### **4. art.- Ez onartzearen ondorioak**

Azokaren Zuzendaritzak parte hartzeko eskaera ez badu onartzen, ordura arte ordaindutako diru-kopuruak itzuliko zaizkio eskatzaileari.

### **5. art.- Espazioen esleipena**

Espazioen esleipena Azokaren Zuzendaritzaren eskumen eskusiboa da. Espazioen esleipenean, Azokaren Zuzendaritzak, ahal den neurrian, kontutan izango du azokaren sektorialtasuna, erakusketarien parte-hartzearen historiala, eskaera data, espazioen arteko harmonia eta azokaren hobekuntza eragin dezakeen beste edozein egoera. Egoera horiekin bat, espazioa parte hartzeko eskaeran eskatzaileak emandako datuak oinarritzat hartuz esleitu da.

Azokaren Zuzendaritzak tokia aldatzeko gaitasuna izango du salbuespeneko egoeraren batek hala eskatzen badu, eta erakusketariak ez du horregatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Kasu honetan, Azokaren Zuzendaritza saiatuko da hasieran esleitutako tokiaren antzeko ezaugarriak dituen beste toki bat esleitzen.

### **6. art.- Erakusketariak uko egitea**

Azokaren Zuzendaritzak parte hartzeko eskaera onartu ondoren, erakusketariak parte hartzeari uko egiten badiu, ordura arte ordaindu dituen kopuru guztiak galduko ditu. Uko egitea azoka hasi aurreko hogeita hamar egunetako tartean egiten bada, bere espazioa osorik ordaintzeko eskatu ahalko zaio, gero beste erakusketari batek okupatu badezake ere.

### **7. art.- Erakusketariaren betebeharrak**

Azokaren Zuzendaritzak parte hartzeko eskaera onartzeak eskatzaileak honako betebeharrak, osorik eta modu ezeztazezinean, onartzea dakar:

- Parte Hartzeko Araudi Orokorra eta azokaren Berariazko Araudia betetzea.
- Kontratututako espazio osoa okupatzea eta azokak dirauen bitartean standean egotea.
- Produktuak azokak dirauen bitartean erakustea, salmenta zuzena baimenduta duen azoka ez bada eta erosleak salgaiak eramaten ez baditu.
- Azokan parte hartzeko eskatzen diren ordainketak burutzea, Berariazko Araudian ezarritakoaren arabera.
- Azokaren gaiarekin lotutako salgaiak baino ez erakustea.
- Ezingo dira eskubideak hirugarren bati lagatu, ez zati bat ez eta osorik ere, salbu eta Azokaren Zuzendaritzaren idatzizko baimena badago.

### **8. art.- Ez betetzearen ondorioak**

Erakusketariak aurreko artikuluan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, edo emandako informazioan gezurra edo akats nabarmena egiten badu, esleitutako edo okupatu gabeko espazioaren gaineko eskubideak galduko ditu. Espazio hori berriro egongo da Azokaren Zuzendaritzaren esku, eta beste erakusketari batzuei eskaini ahalko die. Kasu horretan, erakusketariak ez du inolako kalte-ordainik edo diru-kopuruaren itzulerarik jasotzeko eskubiderik izango.

### **9. art.- Erakusketarientzako zerbitzuak**

Bilbao Exhibition Centre, S.A.-ren (BEC) online dendan, azokak irauten duen bitartean eskainiko diren zerbitzuak eta horiek kontratatzeko aukerak adierazten dira.

### **10. art.- Azokaren katalogoa / Erakusketarien direktorioa**

Azokak hainbat euskarritan argitaratu ahalko du Katalogo Ofizial edo/eta Erakusketarien Direktorio bat; bertan, erakusketarien eta azokaren xede diren erakusketarien eta produktuen zerrenda agertuko da.

### **11. art.- Aduanak**

Nazioarteko erakusketetan eta BILBAO EXHIBITION CENTRE-k (BEC) eskubidea eskatu duen horietan, antolakuntzak Aduana Bulegoa edukiko du barrutian.

- Erkidegokoak ez diren gaien inportazioa:
  - Gaiak BECera igarotze batekin iritsi behar dira: T1; A.T.A. koadernoak, etab.
  - Aldi baterako sarrerako bulegoa: Faktura komertziala eta Jatorri-ziurtagiria.
  - BECera iristean, ongi ikusi behar da gaietan: erakusketaria; azoka; pabiloia; stand eta aduanen agentea.
  - Azokan saldutako gaiak nazionalizatzeke, ezinbestekoa da behin betiko faktura aurkeztea kontsumorako prest egon dadin.

### **12. art.- Argazkiak, filmazioak eta publizitatea**

Erakusketariek Azokaren Zuzendaritzaren baimena izan beharko dute azoka barrutiaren argazkiak eta grabazioak atera ahal izateko, beren erakustokiarenak diren elementuez haratagoko elementuak agertuko badira.

Era berean, debekatuta dago standaren mugetatik kanpoko edozein publizitate eta sustapen ekintza, antolatzaileek espresuki baimena eman ez badute.

### **13. art.- Azokan hirugarrenek parte hartzeko baldintzak**

Azoka bakoitzaren Berariatzko Araudian zehaztuko dira, kasu bakoitzean, bisitariak azokara joateko baldintzak eta profesionalentzako akreditazioak edo erakusketarientzako paseak emateko baldintzak.

### **14. art.- Jabetza intelektual**

Erakusketariak BECi eskatu ahaliko diote produktuak edo zerbitzuak benetan azokan erakutsi direla egiaztatzeko ziurtagiri bat, produktu horien marka-erregistroa eskatzeko lehentasun-eskubidea izan ahal izateko, Markei buruzko 17/2001 Legeari jarraiki.

### **15. art.- Data aldaketa, deialdia bertan behera uztea edo etetea**

BECi edo Azokaren Zuzendaritzari egotzi ezin zaien arrazoiengatik, azokaren deialdia bertan behera utzi behar bada, erakusketa-azala murriztu behar bada, azoka jarduera aldi baterako edo betiko eten behar bada edo azokaren data aldatu behar bada, erakusketariak ordaindutako kopuruak berriro jasotzeko eskubidea izango dute, behin ordura arteko gastuak kenduta, erakusketari bakoitzak ordaindutako kopuruaren arabera, inolako kalte-ordainik jaso gabe.

## **II.- SEGURTASUN ARAUDIA ETA LANeko ARRISKUAK**

### **16. art.- Istripuen prebentzioa**

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentziokoa, eta gainerako arau osagarriak beteaz, prebentzioko arauak BECen barrutian jardungo duten enpresa guztiek jarraitu beharko dituzte, eta uneoro ziurtatu beharko dute haien lanetan dauden langile guztietara iristen direla.

Lan Arriskuen Prebentzioko Legearen 24. artikuluan zehazten denaren arabera (31/95 Legea) langileek eta kontratatutako enpresek jarraitu behar dituzten Segurtasun eta Lan Osasuneko oinarrizko jarraibideak bildu dira dokumentu honetan.

Kontratatzaileak bere langileek, arduradunek eta agintariak euren arriskuei eta prebentzioko neurriak buruzko prestakuntza eta informazio guztia dutela ziurtatuko du, eta norbera babesteko ekipamenduak jarriko ditu. Bere langileei jakinaraziko dizkie lan egingo duten lekuaren arriskuak eta hartu behar dituzten neurriak zeintzuk diren. Horretarako, zerbitzuak kontratatu aurretik informazioaren planoan eman zaie enpresei. Gainera, Bilbao Exhibition Centre, S.A.-ren barrutietan bere kabuz zerbitzuak eskaintzen dituzten azpikontratutako enpresek ere indarrean dauden arauak, lanekoak, gizarte segurtasunekoak eta langileen osasunekoak uneoro betetzen dituztela ziurtatuko du.

Bilbao Exhibition Centre, S.A.-k ez du parte hartuko kontratatzailearen eta azpikontratzailearen lan arriskuen prebentzioaren kudeaketa zuzenean, baina nahi dituen ikuskaritza teknikoak egin ahaliko ditu bere teknikarien bitartez, edo Segurtasun eta Osasun Batzordeko kideen bitartez, zehaztutako arauak betetzen diren ala ez ikusteko.

Kontratatu duen enpresak segurtasun eta osasunaren arduradun bat izendatuko du, bere kargura dauden langileen segurtasun eta osasuna zaintzeaz arduratuko dena, eta Bilbao Exhibition Centre, S.A.-rekin batera enpresak prebentzioarekin lotutako gaiak koordinatuko dituena.

Arriskuen prebentzio arloan betebeharren bat ez betetzeak lanak bertan behera uztea eragin dezake, arauak behar bezala betetzen diren arte.

Lan-tresnak, erremintak, makineria, norbera babesteko ekipamenduak eta antzerako guztiak egoera onean eta homologatutakoak izan behar dira.

Erakusketariak COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskua saihesteko beharrezkoak diren neurri guztiak bete beharko ditu, eta gainera, ez da arrisku horien eraginpean egon behar, une bakoitzean indarrean dauden maila eta izaera guztietako arauetan, irizpideetan, protokoloetan eta gomendioetan ezarritakoaren arabera. BEC erantzukizun orotatik kanpo geratuko da, eta aurrekoa ez betetzeak ekar ditzakeen ondorio guztietatik errugabe izango da.

Bere gain hartzen dituen zuhurtasunerako eta prebentziorako betebeharrak orokor hauen esparruan, eta izaera mugatzailerik gabe, erakusketariak COVID-19a ez hedatzeko momentu bakoitzean egokiak diren era guztietako neurriak ebaluatu eta ezarri beharko ditu (segurtasuna, higiena, babes, edukiera, pertsonen arteko distantzia, desinfekzioa, egokitzapena, langileekin, etab.), eta baita betebeharrak horiek espazioan betetzen direla ziurtatu eta bermatu beharko du.

#### **17. art.- Sarbideak eta komunikabideak**

- Barrutietara horretarako dauden lekuetatik bakarrik sartu ahalko da (arauak betetzen dituzten bide eta ateak).
- Lan-gune bakoitzean dauden seinaleak jarraituko dira.
- Ibilgailuak ez dira inoiz barrutitik irteteko oztopo izan daitezkeen edo baimenik gabeko lekuetan aparkatuko. Ez dute 10 km/h-ko abiadura muga gaindituko.
- Arauzko orgatxoak materiala eramateko bakarrik erabiliko dituzte baimendutako langileek, inoiz ez pertsonak eramateko.
- Garabiak, kamioiak edo bestelako ibilgailu berezien gidariak ibilgailuen barruan geldituko dira lanak burutzen diren bitartean, eta ez dira eremutik irtengo.
- Uneoro jarraitu behar dira suteen aurkako babes neurriak, ezingo dira ibilgailuak aparkatu eta materialak utzi haietan sartzeko oztopo izan daitezkeen zonaldeetan.
- Kaleetan lanak burutuko dituzten langileek laneko eremua balizatuko du eta txaleko islatzaileak erabiliko dituzte.

#### **18. art.- Norbera babesteko ekipamenduak**

- Lantokiaren barruko lanak egiteko, lanpostu bakoitzean jarduera burutzeko behar diren norbera babesteko ekipamenduak erabiliko dira beti.
- Barrutietan zerbitzuak eskainiko dituzten langile guztiek homologatutako norbera babesteko ekipamenduak (NBE) erabiliko dituzte. NBE bakoitza zein jarduera burutzeko eta noiz erabiliko diren jakinaraziko zaie aurretik langileei, eta baita haiek zein arriskutatik babesten dituzten ere. Haiek erabiltzeko trebatu eta entrenatuko ditu enpresak. Jarraibideen eskuliburuaren arabera erabili eta mantenduko dira.
- Laneko arropa behar bezala lotu beharko da, eta ez da handiegia izango. Ezingo du zulorik izan zerbaitekin tratatzea saihesteko. Ez da lan egingo koipez, olio, disolbatzailez edo halakoez zikinduta dagoen arroparekin.
- Muntatzeko lanetan segurtasun-oinetakoak eta babesteko eskularruak erabili beharko dituzte langileek.
- Objektuak edo materialak erortzeko edo zintzilik dauden ekipamenduak ukitzeko arriskua dagoenean, burua babesteko kaskoa eraman beharko dute langileek.
- Erorketen aurkako sistema erabiliko da taldeko babes ez duten (barandak, sareak, etab.) 2 metro baino gehiagoko altueratan burutuko diren lanetara iristeko eta lanak burutzeko.

- Hautsa, gasa, lurruna edo bestelako substantzia kaltegarri xurgatzeko arriskua duten lanak burutzeko, maskara, aurpegi-babesa, iragazkia edo arnasteko ekipamendu egokiak erabili beharko dira.
- Beharrezkoa denean segurtasun-betaurrekoak eta belarrientzako babesak ere erabili beharko dira.

#### **19. art.- Arrisku elektrikoak**

- Enpresaren baimenik gabe erabat debekatuta dago etengailuak ezta koadro elektrikoak manipulatzeko. Ez dira enpresaren instalazio edo gailu elektrikoak manipulatzeko haren baimenik gabe. Arazorik balego, jakinarazi nagusi hurrenari.
- Entxufe anitzak saihestu.
- Gailu edo instalazio elektriko bat erabili aurretik, ziurtatu itxuraz akatsik ez duela, hura erabiltzeko neurriak zein diren galdetu eta horiek goitik behera jarraitu.
- Lan guztiak hasi aurretik sarearen tentsioa makinaren tentsioarekin bat datorrela egiaztatuko da.
- Ez da instalazio edo gailu elektrikoetan lan egingo eskuak edo oinak bustita.
- Gailu elektrikoaren babesak ez ireki inoiz, eta tentsio elektrikoaren duen hari edo gorputzarekin kontaktua saihesteko seinale edo babes guztiak jarraitu beti.

#### **20. art.- Ordena eta garbitasuna**

- Lanak bukatutakoan, mantentze-lanak burutzeko ekipamenduen babesak kenduz gero (barandak, babes-estalkiak, etab.), babesak jarriko dira eta ekipamendua edo instalazioaren zainpeko baldintzak zein diren galdetuko da.
- Lanak ez dira bukatutzat emango erabilitako material edo ekipamenduak kendu eta eremua garbi eta txukun utzi arte.
- Lanak burutzeko produktu kimikoren bat erabiltzen bada, ontziak behar bezala egon behar du etiketatuta. Dagokion etiketa ez duen ontzi batera ezingo da substantzia lekuz aldatu.
- Lanak burutzean sortutako hondakinak berehala eta behar bezala kanporatuko dira eta ez dira inoiz ontzi arruntetan edo hustubideetatik botako.

#### **21. art.- Arrisku bereziak**

- Kosken, plataformen, erresistentzia txikiko paramentu eta abarren ertzetan burutzen diren lanetan eta, oro har, taldeko babes-neurriak erabiltzerik ez dagoen lekuetan, derrigorrez erabili beharko dira erorketen aurkako babes-sistemak.
- Margoak, bernizak, disolbatzaileak, eta abar behar dituzten lanetan, produktu bakoitzaren segurtasun-etiketa egiaztatu eta bete beti haren segurtasun-jarraibideak.

## 22. art.- Eskuko tresnak

- Egoera onean dauden eskuko tresnak bakarrik erabili ahalko dira.
- Eskuko tresnak korrante-hargune egokien bitartez konektatuko dira koadro elektrikoen irteera normalizatuekin.
- Ekipoak konektatzeko luzagarriak erabiliz gero, egoera onean egon behar dute eta isolamendu bikoitza ez duten tresnak erabiltzen direnean babeseko eroalea erabili behar da.
- Sute edo leherketa arriskua duten seinaleztatutako zonaldeetan erabiltzen direnean, haien mugak eta erabiltzeko baldintza bereziak zein diren galdetuko da.

## 23. art.- Makinak

- Beharrezkoa den baimena eta trebakuntza ez duten langileek ezingo dituzte prestakuntza zehatza beharrezkoa duten makinak, ekipamenduak edo gailuak erabili.
- Makinek ez dute arazorik izango funtzionatzeko.
- Lana hasi aurretik, makinaren egoera ona dela egiaztatuko da, eta arazoren bat ikusten bada, gaineko arduradunari jakinaraziko zaio.
- Zulatu beharra dagoenean, barautsa igarotzean istripuak eragin ditzaketen hariak edo bestelako oztopoak ez daudela egiaztatuko da.
- Errematxagailuak eta antzerako beste tresna pneumatikoak beti jarriko dira lanabesa beherantz begira erabiltzen ez direnean. Laneguna edo atsedenaldea bukatzen denean, makinatik kenduko da lanabesa.
- Makina guztietan derrigorrezko babes-elementu guztiak erabiliko dira eta lanak hasi aurretik egiaztatuko dira.
- Zulatzeko tresnak, moztekoak, eta hartxintxarrak jaurti ditzaketen bestelakoak erabiltzen direnean, behar bezala homologatutako babes-betaurrekoak erabiliko dira.
- Debekatuta dago mugitzen ari diren makinaren euskarria doitzea.
- Makina bakoitza hari dagokion lanerako bakarrik erabiliko da, beste ezertarako ez.

## 24. art.- Lanak alturan

- Alturan lanak egiteko baimena behar da.

### Eskailerak

- Eskailerak iraganbideetan erabiltzen direnean, arrisku zonaldea balizatuko da edo norbaitek arriskuaz ohartaraziko du.
- Eskailera erabili aurretik, oinarria eta haren egoera egiaztatu behar dira, langak pieza bakarrekoak direla eta mailak ongi finkatuta daudela. Oinean labaintzea eragozteko gailu edo sistema edukiko dute edo eusteko kakoak goiko aldean. Egoera onean egon behar dute.
- Eskailerari begira egingo da lan, eta esku batekin hari helduta. Ezinezkoa balitz, puntu finko batera lotutako segurtasun-uhala erabiliko da, inoiz ez eskailerara lotuta.



- Eskailerak ezingo dituzte bi pertsonak aldi berean erabili.
- Ezingo dira bi eskailera elkartu horretarako bereziki erabiltzen diren gailuak ez badituzte.
- Lanak altueran egiteko, tresnak eramateko uhala eramango du langileak soinean. Tresnak edo materialak ez dira botako, eskura emango dira, edo soka edo saski baten bitartez.

#### Aldamioak eta plataformak

- Aldamioak sendoak eta egonkorak izango dira eta baimendutako langileek edo trebatuek bakarrik muntatu ahalgo dituzte (aldamio motaren arabera). 2 m-tik gorako altueran lan egiten bada, baranda, bitarteko listoia eta errotopia jarri beharko dira. Hala ez bada, gaineko arduradunari jakinaraziko zaio.
- Aldamioek gurgpilak badituzte, igo aurretik blokeatu dira.
- Laneko plataformak gutxienez 60 cm-ko zabalera edukiko du.
- Aldamioen edo plataformen gainean ez da lanean jarraitu ahal izateko materiala baino gehiago jarriko, gehiegi ez kargatzeko eta leku gehiago edukitzeko.
- Aldamioa lekuz aldatzen denean, ez da haren gainean lanik egingo.
- Laneko plataformen lurra eta korridoreak irristagaitzak izango dira, oztopo guztiak kenduko dira eta produktu labainkorak kanporatzea ahalbidetzen duen drainatze-sistema edukiko dute.
- Plataformara igotzeko eskailera egituraren albo batean jarriko da, inoiz ez kantoietan.
- Lanak plataforma mugikorren gainean egiten direnean, haiek mugitzea eragotziko duten segurtasun-gailuak edo sistemak erabiliko dira.

#### **25. art.- Jasotzea eta garraioa**

- Lantokian hariak eta eslingak erabiltzen badira, laneko karga nominalarekin identifikatuta egon behar dute.
- Jasotzeko eta garraiatzeko ekipamenduak manipulatzeko dituzten langileek edo kargak mantentzeko osagarriak erabiltzen dituztenek haiek segurtasunez maneiatzeko gai direla ziurtatzen duen enpresa nagusiaren baimena edukiko dute.

#### **26. art.- Oinarrizko prebentzio-neurriak**

- Beharrezkoa den baimena eta trebakuntza ez duten langileek ezingo dituzte prestakuntza zehatza beharrezkoa duten makinak, ekipamenduak, koadroak, hariak, konexio elektrikoak edo gailuak erabili.
- Erabat debekatuta dago edari alkoholikoak eta bestelako drogak lantokietara sartzea.
- Argi- edo bero-iturrietatik hurbil ez utzi material erregaiak.
- Saihestu 25 kg-tik gorako kargak eskuz jasotzea.
- Baliabide mekanikoak erabili material astunak jaso eta deskargatzeko.
- Lan-arriskuen prebentzio-neurriak bete beti, eta zalantzarik baduzu, galdetu nagusi hurrenari.

## **27. art.- Jokabidea istripu eta larrialdietan**

### Pabiloietan sartzean

- Larrialdietarako irteerak eta su-itzaigailu hurbilenak non dauden ikusi, pabiloiaren arduradunak identifikatu (uniformea, arropa identifikatzailea, erakusmahaiak).
- Arazorik balego, esan nagusi hurrenari.
- Ez itzazu larrialdietan erabiltzeko bideak, sarbideak edo ateak itxi edo oztopatu.

### Istripua edo Larrialdia gertatuz gero

- Behean datorren telefonora deitu edo arduradunekin hitz egin berehala.
- Identifika zaitetz.
- Arazoaren lekua, izaera eta nondik-norakoak azaldu.


### Sutea gertatuz gero

- Lasai egon, ez egin garrasi eta ez egin korrika Ez itzazu igogailuak erabili.
- Zure arropak su hartzen badu, bota zaitetz lurrera eta birak eman lurrean; ke asko badago, lau hankatan ibili.
- Ez itzuli objektu pertsonalak hartzera.
- BECeko Ebakuazioko Taldearen jarraibideei jarraitu.

LARRIALDIETARAKO  
TELEFONOA 94 40 40 222



BILTZEKO PUNTUAK



### **28. art.- Erakusketariaren konturako langileak**

Erakusketariaren erantzukizuna bakarrik denez, kontratatzaileei eta azpikontratatzzaileei indarrean dagoen lan eta Gizarte Segurantzako legeria bete eta betearaziko die nahitaez, are zehatzago standaren eta han erakutsiko diren objektuen garraioan, muntatzean, manipulazioan, funtzionamenduan eta desmuntatzean aplikatu behar diren lan arriskuen prebentziokoak.

Gainera, istripuen aurrean aseguratuta edukiko dituzte langileak, eta baita beraien ekintzen gaineko erantzukizun zibila ere. Bere kontratatzaile eta azpikontratatzzaileek ere bai. Harremana hasi aurretik, bitartean edo ondoren, BECek aipaturiko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak eskatu ahaliko ditu.

Ez da lan harremanik egongo BECen eta stand muntatzean kontratatzaile edo azpikontratatzzaile gisa parte hartuko duten enpresen eta erakusketariaren artean.

### **29. art.- Debekatuta dauden jarduerak**

Debekatuta daude azokaren barrutiko leku guztietan istripua gertatzeko arriskua dakarten jarduerak guztiak. Are zehatzago, ezingo da kaltegarri, arriskutsu edo osasunarentzako kaltegarriak diren materialak utzi edo erakutsi, ezta azokaren barrutian pintura zelulosikoak lainoztatu edozein objekturen gainean.

Era berean, eraikuntza eta muntatzean edo apaintetan erabiliko den material guztiak bete behar du indarrean dagoen araudia eta erregaitza edo suaren aurkakoa izan beharko du, eta behar izanez gero, behar bezala inpregnatuta egon behar da.

Azoka bakoitzaren Berariazko Araudiak azoka horrekin lotutako beste jardueraren bat debekatu dezake.

### **30. art.- Esleitutako espaziora mugatzea**

Segurtasun arrazoiak direla eta, standak muntatzeko eta desmuntatzeko epeetan, erakusketariaren material guztia esleitutako espazioaren barruan egon beharko da, korridoreak eta bestelako guneak libre utziz.

Muga horietatik kanpo dagoen materiala azokaren barrutia garbitzen duten zerbitzuek kenduko dute, eta ez da indemnizaziorik jasotzeko eskubiderik izango.

### **31. art.- Erakustaldiak**

Erakusketariak aldeztu aurretik eskatu beharko dio Azokaren Zuzendaritzari baimen espresua eta idatzia azokaren ondasunei edo/eta bisitariari, beste erakusketariari, azoka barrutiari edo langilei arriskurik suposa dakiekeen lanik, erakusketaldirik edo apaintetarik egin nahi badu.

### **32. art.- Erakusketariaren erantzukizun eskusiboa**

Erakusketaria izango da bere langileei, beste erakusketariari edo azoka barrutitik kanpo edo barruan dauden pertsona eta ondasun guztiei eragindako edozein izaerako min eta/edo kalteren erantzule, horiek erakusketariaren jardueran oinarria badute edo haiek kontratatutako edo azpikontratutako langileen ekintzen edo omisioen ondorioz sortu badira edo bere espazioan instalatutako ondasun edo produktuek sortutakoak badira.

Erakuslea, bere kontratistak edo/eta azpikontratistak Parte Hartzeko Araudi Orokor honetan xedatutako segurtasun arauak ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen erantzule izango dira.

### **33. art.- Aseguruak**

1.- Bai standak eta bai erakusten diren produktuak ez daude Azokaren Zuzendaritzaren zaintzaren pean edo gordailuan, eta horiek kaltetu ditzaketen arriskuak erakuslearen erantzukizuna izango dira.

Erakusketariak uko egiten dio BECen, bere bazkideen eta bere langileen partez dirua jasotzeari erakusten dituen produktuak kaltetuak edo galduak gertatzeagatik, horien partez engainuzko jarrera frogatzen bada salbu.

2.- Standen eta erakusten diren ondasunen segurtasuna bermatzeko, BECek kalteen eta erantzukizun zibileko aseguru polizak kontratatu ahalko ditu, azokaren Berariazko Arauetan zehazten diren estaldurekin. Erakusketariak ordaindu beharko du aseguru horien kostua.

3.- Erakusketariak aseguratuak izan beharko ditu azokara izendatutako langileak eritasun eta istripu arriskuen aurrean, sektoreko hitzarmenekin edo hitzarmen partikularrekin edo Legearekin bat etorritz.

4.- Erakusketariak azoka barrutiaren barruan edozein ibilgailu erabiltzeko Azokaren Zuzendaritzaren baimena jasotzen badu, erakusketariak Derrigorrezko Erantzukizun Zibileko aseguruak izan beharko du indarrean, Motordun Ibilgailuen Erabilera eta Zirkulazio Legearen arabera.

5.- Aurreko klausulak betetzeko xedearekin kontratatutako aseguruak ez dituzte mugatuko erakusketariari dagozkion betebeharrak eta erantzukizunak, Parte Hartzeko Araudi Orokorren eta parte hartuko duen azokaren Berariazko Araudiaren arabera, eta gehiegizko edo estalitako muga eta bermeen faltan egotzi ahal izango zaizkion galera edo erantzukizunen erantzule izango da, eta baita aseguruaren frankizien zenbatekoarena ere.

#### **34. art.- Azoka barrutiaren zaintza**

Azokak dirauen bitartean, BECek azoka barrutira sartzeko bideen kanpoko zaintza orokorra eskainiko du, bai eta barruko zaintza ere, disuasio-izaerakoa eta segurtasun orokorrekoa eta prebentiboa, sute edo edozein motatako larrialdi egoeratan ordena eta segurtasuna eskaintzeko.

Hala ere, erakusketaria izango da, edozein kasutan ere, lapurreta, ebasketa edo beste edozein arrazoiren baten ondorioz, azoka barrutiko, bere standeko ondasunetan edo bisitariengan edo azokako beste erakusketariengan sortutako min edo kalteen erantzule bakarra, horiek bere standaren espazioan gertatzen badira.

BEC ez da, inola ere, azoka barrutiaren barruan edo kanpoan aparkatutako ibilgailuen erantzule izango, ez eta barruan dauden material edo objektuena ere.

### **III. MUNTATZEKO ETA DESMUNTATZEKO ARAUDI TEKNIKOA**

#### **35. art.- Aurreko izapideak erakusketarientzat**

- Erakusketariak xehetasun osoz beteko ditu honako eskakizun eta ziurtagiriak:
  - Eskatutako potentzia elektriko osoa (kW eta Kvar).
  - Hargailu kopurua, bakoitzaren tentsioa (380/220 V) eta potentzia (kW eta Kvar).
  - Hartune espezifiko kopurua, 40 kW-tik gorakoak, 20 eta 40 kW bitartekoak, eta 20 kW baino gutxiagokoak.
  - Aire konprimatuaren emaria (l/min.) eta hornikuntza-gune kopurua (7 bar-eko presioa).
  - Behar diren ahots/datuen linea kopurua, eta haiek non jarriko diren.
  - Ur-hornikuntza (bezeroari zerbitzua).
  - Elementu, makina edo osagarrientzat aurreikusitako pisuak eta oinarri-sistemak.
  - Elementu espezifikoak eusteko beharrak.
  - BECen egiturari transmititutako karga estatikoak eta dinamikoak.
  - Aurreikusitako oinarriari eusteko sistema.
  - Ekipoen norberaren arriskuen aurreko babes orokorrak eta espezifikoak.
  - Eska daitezkeen segurtasuneko homologazio espezifikoak.
- Beste batzuk



• BECek eskubidea du erakusketariak elementuak finkatzeko proposatzen duen sistema onartu edo aldatzeko. Proiektu zehatza eskatu ahal izango du, trebatutako teknikari batek egingina, haren bideragarritasuna eta egituren segurtasuna egiaztatzeko. Era berean, indarrean dagoen instalazio elektrikoaren araudia edo beste araudiak betetzea eskatuko du.

Zerbitzuak hornitzeko, beharrezkoak diren baimen ofizialak aurkeztea eskatuko du BECek. Bere instalazioari dagozkion lege betebeharrak betetzen ez baditu, erakusleak ezingo dio erreklamaziorik egin BECi.

BECek erakusketariari bere standa non kokatuko den adieraziko dio. Erakusketariaren beharrak BECen Zerbitzuen Departamentuari jakinarazi beharko zaizkio azoka muntatzen hasi baino 30 egun lehenago. Egun horren ondoren, BECek ezingo du azpiegitura finko edo eskura daudenean ezalduen ez diren zerbitzuen hornikuntza edo eskuragarritasuna bermatu.

• Erakusketariak bere standaren planoak bidaliko dizkio BECi energia, aire konprimatua, ura, hustubidea eta telefonoa behar dituzten elementuen kokapenarekin.

• BECek eskubidea du Araudi honek edo kasu bakoitzari dagokion araudiak ezartzen dituen epeetan jaso ez diren erakusketariaren eskakizunak onartzeko ala ez onartzeko. Edozein kasutan ere, aipatutako zerbitzuen prezioak online dendan argitaratutako prezioaren gainean % 30ko gainkargua izango du.

• BECek, edonola ere, eskubidea du erakusketariaren proiektua, erakusketarentzat egokia den ala ez kontuan hartuta, onartzeko edo aldatzeko eskubidea du.

### **36. art.- Aurreko izapideak muntatzaileentzat**

• Lanean hasi aurretik, muntatze enpresak, apainketakoak, muntatze-desmuntatzean lan egingo duten langile autonomoek eta erakusleak izendatutako besteek derrigorrez izan behar dute erakusketariaren baimena, Erakusketaren web orrian dagoen Erakusleen Zona Pribatuaren / Pase eta inskripzioen / Baimen formulario bitartez.

• BECek sarrera ukatzeko eskubidea du.

• Antolatzaileek muntatzeko eta desmuntatzeko kanonak ditu, stand motaren m<sup>2</sup> kopuruaren eta lan horiek egiteko ordutegien arabera. Tarifa horiek muntatze eta desmuntatze aldietan egindako zerbitzuengatik hartuko dira kontuan.

• Osasun-laguntzako zerbitzuak (ATS).

• Instalazio elektrikoaren ikuskaritza.

• Zona komunen garbiketa.

• Komunak.

• Konexioak eta hornikuntza elektrikoa muntatu eta desmuntatzean.

• Pintura gelen erabilera eta haien mantentze-lanak.

• Muntatzaileari laguntzeko zerbitzu pertsonalizatua eta lekuen seinaleztatze individualizatua.

• Standa Zerbitzuen Departamentuekin burutzea kontratatzen duten erakusketariak bakarrik izango dute "kanona" instalazioaren prezio osoan sartuta.

• Muntatze- edo apainketa-enpresan, zuzenean edo ez, lan egiten duten langile guztiek eta erakusketariaren eskutik muntatze-desmuntatzean lan egingo duten autonomo guztiek egunean edukiko dituzte lan estaldurako betebeharrak, eta garatuko dituzten lanetan trebatuta egon beharko dira, baita arriskuen prebentzioari dagokienez eta bestelako araudiei dagokienez ere, BECen aginduak barne. Betebeharrak betetzen ez badira, BECek eskubidea izango du muntatze-desmuntatzea gelditzeko eta dagozkion langileak edo erantzuleak berehalako tokitik botatzeko, haien aurka BECek martxan jarri ditzakeen lege-ekintzen kalterik gabe.

• Tramite guztiak burututakoan, apainketa enpresak lan egingo duten pertsona kopurua bezainbeste baimen jasoko ditu, aurretik, eta egiaztatzeko, enpresa kolaboratzaileen izenarekin zerrenda bidali badu, langile bakoitzaren izena eta NANarekin batera.

### **37. art.- Segurtasun araudia**

#### A.- Istripuen prebentzioa

Erakusketariak indarrean dauden tokiko zein erkidegoko segurtasun xedapen guztiak eta "Parte hartzeko Araudi Teknikoan" bildutakoak beteko ditu eta betearaziko dizkie haren kontratatzaile eta azpikontratzaileei.

Gainera, ordena publikoa mantentzeko indarrean dagoen legeria eta BECek egindako larrialdietarako eta husteko plana bete eta betearaziko du.

Edonola ere, suteen aurkako material eta instalazioen kokalekua eta sarbideak errespetatu beharko dira: suteetako ur-harguneak, suitzalgiak, alarmak edo larrialdietako irteerak, besteak beste; horiek kontratatutako tokietan edo zerbitzuguneetarako sarbideetan badaude ere.

Muntatze eta desmuntatzeko izendatutako langileen segurtasuna babesteko, segurtasun elementuak erabili beharko dituzte nahitaez: kaskoak, betaurrekoak, eskularruak, etab.

#### B.- Erakusketariaren konturako langileak

Erakusketariaren erantzukizuna bakarrik denez, kontratatzaileei eta azpikontratzaileei indarrean dagoen lan eta Gizarte Segurantzako legeria bete eta betearaziko die nahitaez, are zehatzago standaren eta han erakutsiko diren objektuen garraioan, muntatzean, manipulazioan, funtzionamenduan eta desmuntatzean aplikatu behar diren lan arriskuen prebentziokoak.

Gainera, istripuen aurrean aseguratuta edukiko dituzte langileak, eta baita beraien ekintzen erantzukizun zibila ere. Bere kontratatzaile eta azpikontratzaileek ere bai. Harremana hasi aurretik, bitartean edo ondoren, BECek aipaturiko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak eskatu ahaliko ditu.

Ez da lan harremanik egongo BECen eta stand muntatzean kontratatzaile edo azpikontratzaile gisa parte hartuko duten enpresen eta erakusketariaren artean.

#### C.- Debekatuta dauden jarduerak

• Debekatuta daude azokaren barrutiko leku guztietan istripua gertatzeko arriskua dakarten jarduerak. Are zehatzago, beste erakusketariei edo bertara hurbilduko direnei ondoeza eragin diezazkieketen eta usain txarra duten materia sukoi, leherkor, kaltegarri, arriskutsu edo osasunarentzako kaltegarriak ezin da utzi edo erakutsi.

• Azokaren barrutian pintura zelulosikoak lainoztatzea edozein objekturen gainean.

• Eraikuntza eta muntaketetan edo apainketan erabiliko den material guztiak bete behar du indarrean dagoen araudia eta erregaitza edo suaren aurkakoa izan beharko du, eta behar izanez gero, behar bezala inpregnatuta egon beharko da.

• Argiztapen-ekipoak bakoitzaren standaren barrurantz bakarrik egongo dira zuzenduta eta debekatuta dago eremu publikoak eta ondokoak zuzenean argiztatzea.

• Debekatuta dago erakusketaren pabiloien barruan eraikuntza-atazak burutzea (plantxekin moztea, soldadura, pistolarekin margotzea, etab.)

• Debekatuta dago gori jartzen diren tresnak erabiltzea (soldagailuak, oxiebaketa, sopleteak, etab.)

Azoka bakoitzaren Berriazko Araudiak azoka horrekin lotutako beste jardueraren bat debekatu dezake.

### **38. art.- Muntatzea**

• Ezin da muntatzen hasi BEC oraindik zerbitzu ordaintzeke duten enpresa erakusketariak, ordaintzeko obligazioa sortu zeneko azoka edo ekitaldia beste bat izan bazen ere.



- Muntatze eta desmuntatzean eraman behar diren bereizgarriak.
- Muntatze, azoka edo desmuntatze faseetan lanak egingo dituen eta erakusketariaren enpresakoa ez den orok lan egiteko baimena eskatu beharko du [acreditaciones@bec.eu](mailto:acreditaciones@bec.eu) helbidean.
- Espainiakoak ez diren enpresek kontratatutako langileek pasaporteak erakutsi beharko dute, edo Europar Batasunekoak badira, Europar Batasuneko herrialdean emandako nortasun agiria. Aipaturiko langileak kontratatu dituzten enpresek espainiar araudia beteko dute lan arriskuen prebentzioan.
- Erakusketariaren baimenek muntatze eta desmuntatze epeetan bakarrik balioko dute.
- BECek eskubidea izango du muntatzeko epeak eta ordutegiak aldatzeko, beharrezkoa iruditzen zaionean.

### **39. art.- Eraginkortasuna**

- Azokaren barrutiaren barruan, materiala muntatu, bukatu eta apaingarri eta produktuak jarri ahalko dira, besterik ez. Standari egokitu zaion lekuan burutu beharko dira lanak, inoiz ez handik at.
- Muntatzeko erabili diren materialak ezingo dira korridore eta Pabiloien sarbideetan utzi eta ongi egiaztatu behar da Larrialdietarako Irteerak eta Sute-aho ekipatuak (BIE) libre dauden uneoro. Hala ez bada, hor utzi dituen enpresaren erantzukizuna izango da. Muga horietatik kanpo dagoen materiala azoka barrutia garbitzen duten zerbitzuek kenduko dute, eta ez da kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
- Eguneroko, muntatzeko lanetan zehar, erakusketariak zein apaintzaileak, eguna bukatutakoan, soberan dagoen material guztia kenduko dute, eta BECek enpresaren eskura jarriko du horretarako beharrezkoak diren edukiontzia.

### **40. art.- Muntatzeko ordutegia eta Sarbideak**

- Muntatzeko ordutegia, azokaren Berariazko Araudiak besterik ez badu aurreikusten, 8:00etatik 20:00ak arte izango da, azokaren inaugurazioaren aurreko egunean izan ezik, egun horretan halaberrez 15:00etan bukatuko da eta. Une horretan, stand guztiek bukatuta eta prest egon behar dute, produktua erakusteko moduan eta bilgarriak haien biltegitzeko lekuan. Ordutegi horretan dornadurak egin daitezke, standak muntatu, etab. Aurreikusitako ordutegia luzatu daiteke, 22:00ak edo 00:00ak arte, muntatzea zaila bada edo beste egoera batzuk hala eskatzen badute. Horretarako, Zerbitzu Teknikoen Departamentuari baimena eskatu beharko zaio eta hari dagokion kanona aurretik ordaindu.
- Pabiloietarako sarbidea eta karga eta zain egoteko guneak kasu bakoitzean azokaren ezaugarrien arabera zehaztuko dira eta jarraibide egokiak emango dira azoka barrutiaren plano zehatzen bitartez.
- Muntatzen eta desmuntatzen den egunetan, erakusketarien ibilgailuak deskarga eta karga egiteko sartzeari baimentzeko edo murrizteko eskubidea du BECek, deskargatzeko ibilgailuan dagoen materialaren arabera edo standean kentzeko dagoen materialaren arabera.

### **41. art.- Muntatze/ekitaldi/desmuntatze faseetan ibilgailuak sartu eta egotea**

- BECek jarraibideak emango ditu kasu bakoitzean azoka barrutira eta pabiloietara ibilgailuak sartzeari arautzeko, edo azoka bakoitzaren aurretik, azokan zehar eta ondoren haien denbora mugatzeko.
  - Ibilgailuek BECeko eremuaren barruan zama lanak egiteko denborak honako muga hauek ditu:
  - > 3.500 kg-ko baimendutako karga maximoa duten ibilgailuak: Hiru ordu
  - ≤ 3.500 kg-ko baimendutako karga maximoa duten ibilgailuak: Bi ordu
  - Autoak eta monobolumenak: Ordu bat
- Denbora horiek gainditzen dituztenek 30,00 €-ko disuasio-tarifa ordaindu beharko dute orduko.

## GOGORATU

- Sarreran emandako ticketa ikus daitekeen lekuan gorde ezazu eta ez bota.
- Ez aparkatu merkantzien atearen, larrialdietarako irteeren eta suteen aurkako instalazioen aurrean.

Honako hauek dituzu aukeran: Tarifak	LURPEKO PARKINGA (Galibo < 2,20 m. eskusiboki)	KANPOKO PARKINGA (≥2,20 m galibo eskusiboa)
Lehenengo ordua	2,00 €	1,50 €
Gainontzeko orduak	1,40 €	1,50 €

### 42. art. Merkantziak sartzeara/birjartzea

- BECera doan merkantzia guztia ongi identifikatu beharra dago (pabiloia, stand zb. eta enpresa erakusketaria) eta erakusketariak berak jasoko du.
- Salgaiak pabiloietara iristeko unea koordinatuta egon behar da erakusketariak baimendutako pertsonak materiala deskargatzen den lekuan jasotzeko. BEC ez da inoiz salgai horiek jasotzeaz arduratuko.
- Azokak irauten duen bitartean, salgaiak azoka ireki aurreko orduan eta itxi ondoko orduan berrituko dira. Antolatzaileek erraztasunak emango dituzte pabiloietako sarreretaraino sartzeko, bai ibilgailuak eta baita eskuz ere.

### 43. art.- Bilgarri hutsak

- Erakusketako pabiloietan ez da bilgarririk egon beharko azoka hasi baino 24 ordu lehenago. Bilgarririk egotekotan, BECek hura kentzea agindu dezake, eta erakusketariak ordaindu beharko ditu horrek sortutako gastuak.
- BEC ez da garaiz kendu ez den bilgarrien erantzule izango.
- BECek erakusketariak ordaindu beharreko bilgarri zerbitzu bat dauka, bilgarri materiala kentzeaz, biltegitratzeaz eta standean entregatzeaz arduratzen dena. Zerbitzu eskusibo hori kontratatuzko online dendan eskuragarri dagoen orria bete behar da.

### 44. art.- Desmuntatzea

- Azokaren azken egunean, itxi ondoren, salgaiak eskuz atera ahal izango dira, nahiz eta ibilgailuak barrutira sartu ezingo diren. Horretarako, zirkuitu elektrikoak irekita utziko dira. Edozein aldaketa Azokaren Berariazko Araudian sartuko da.
- Desmuntatzeko epea araudi horretan adierazitako datetara egokituko da.
- Gainera, desmuntatzeko aldi desberdinak zehaztu daitezke pabiloi desberdinentzat, azokaren ezaugarrien arabera.
- Muntatzeko eta desmuntatzeko epeak amaitutakoan erabili den lekua entregatu zen bezala utzi behar da. Ezingo da azokaren barrutian apainketa materialik utzi. Edonola ere, desmuntatzea bukatu ondoren, barrutian gelditzen diren materialak biltegitratutako aldiaren eta trasladoaren gastuaren arabera, eta antolatzaileek zein enpresak egindako gainerako gastuen arabera fakturatuko dira. Jakina, ez da erreklamaziorik onartuko.
- BECek eskubidea du standa desmuntatu edo gaiak mugitzeko eta erakusketariari kobratzeko azken data hori gaindituz gero. BEC ez da material eta gai horiek biltegitratuta dauden bitartean jasan ditzaketen kalteen erantzule izango. Biltegitik 15 egunetan atera ez badira, BECek eskubidea du erakusketariaren aurka ekintza judiziala erabiltzeko sortutako gastuak eta eragindako galerak berreskuratzeko.
- Erakusketari batek barrutiaren barruan materialen bat utzi beharko balu, idatziz aurkeztu beharko du eskakizuna zenbat denboraz gorde nahi duen, merkantzia mota, izena eta harremanetarako telefonoa adierazita. Zerbitzu horrek sortzen dituen gastuak bereiz fakturatuko dira eta materiala eraman aurretik ordaindu beharko dira.
- Gainera, antolatzaileek zaborrak kentzeko tasak aurrekusi dituzte, haien standak eraiki duten lekua libre eta garbi utzi ez duten eta desmuntatu ondoren hondakinak edo zaborrak utzi dituzten apainketa enpresei aplikatuko zaiena.

- Azokaren barrutitik merkantziak ateratzeko, behar bezala eduki behar da beteta materialen Irteera Orria eta ordainduta egon behar da enpresak antolatzaileei zor dien guztia.
- BECek eskubidea izango du muntatzeko aldiak eta ordutegiak aldatzeko, beharrezkoa iruditzen zaionean.

#### **45. art.- Material motak**

- Debebatuta dago eraikitzeke eta apaintzeko oso toxikoak eta sukoiak diren materialak, besteak beste:
  - Puxikak edo gasarekin puzten diren gainerako elementu apaingarriak.
  - Suaren aurka babestu gabeko moketa.
  - Kantitate handian prentsaturako porexpana.
  - Pintura zelulosikoekin lainoztatzea.
  - Lasto-sortak.
  - eta hala sailka daitezkeen beste materialak.

Erabiliko diren materialek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, materialen suteen aurkako erresistentziari dagokionez gehienbat. BILBAO EXHIBITION CENTRE-k (BEC) eskatuta, haien suaren aurkako ezaugarrien ziurtagiria aurkeztu beharko da.

#### **46. art.- Standak eraikitzea eta apaintzea**


- Kontrataturako lekua zorua eta haren perimetroa esan nahi du, (azokaren beraren Araudiaren ondoriozko salbuespenetan izan ezik, standaren muntatzea barne hartzen duen m<sup>2</sup>-ren prezioa, edo Arauek beste zerbait adierazten dutenean). Beraz, erakusketariak gainazal hori haien beharren arabera apaindu behar dute.
- Alokaturako erakusketaren gainazalean standak eraikitzea oinarritzko baldintza da. Antolatzaileek aurrekoa betetzera behartu ditzakete standak jartzea aurrekusi ez dituztenak. Ezingo dira erabili beste erakusketarien hormak.
- Erakusketari edo apaintzaileak lekuaren ezaugarriak eta berezitasunak zein diren ezagutu beharko ditu, eta baita aldi baterako instalatu daitezkeen elementuen kokapena eta tamaina zein izango den eta errespetatu beharko direnak zein diren, mahukak, sute-ahokak, banatzeko kuxkak edo hustubideak esaterako.
- Standaren eraikuntza eta dekorazioa erakusketariari dagokio, standek egitura zehatz bat izan behar duten azoketan edo agerraldietan izan ezik.
- Arau orokor gisa, eta berariazko arauak dituzten azoketan izan ezik, hauek hartu behar dira kontuan:
  - Atzeko fatxadek stand barrukoaren pareko kalitatezko akabera izan behar dute.
  - Banatzeko trenkaden gehienezko altuera ezingo da 3 m baino gehiagokoa izan.
  - Gehienez 4 m-ko altuera baimenduko da standaren kanpoko fatxadetan. 4 m baino gehiagoko eta 6 m baino gutxiagoko altuera duten elementu apaingarriek (pabiloian sartzen badira) standaren perimetrotik metro bat atzera bota behar dira.
  - Ezingo dira standaren kanpoko fatxadetan aldearen altuera osoaren erdia baino gehiagoko itxitura itsurik egingo.
  - Goiko itxiturentzat, baimena eskatu behar zaio Zerbitzu Teknikoen departamentuari muntatzen hasi baino 30 egun lehenago.
  - Standaren perimetroaren kanporago ezingo da apaingarririk edo seinaleztatzerik atera, korridorearen fatxadak argiztatzeko elementuak, esaterako.
- Standaren egiturarengatik beharrezkoa denean, ezinduak sartzeko arrapalak izango dituzte.
- Apaintketan erabiliko diren materialak erregaitzak edo suaren aurkakoak izan behar dute, eta behar badute egoki inpregnatuak egongo dira horretarako.

• Stand gisa errekuntza motorra erabiltzen duten enpresek, esleitutako lekura sartu ahal izateko eta bukatutakoan utzi ahal izateko gutxieneko erregaia eduki beharko dute tanga.

Gehienezko altuerak:

a) Ondoz ondoko standekin bereizteko trenkaden gehienezko altuera ezingo da 3,00 m baino gehiagokoa izan. 3,00 m gainditzen dituzten apaingarriek, 6,00 -ra arte (pabiloiaren altueran posible denean) standaren barrurantz metro bat sartu beharko da.


2. 12a eskema



Esquema 2.12a

- Standaren kanpoko fatxadetan (korridorera ematen dutenak), gehienezko altuera ezingo da 4,00 m baino gehiagokoa izan. 4,00 m gainditzen dituzten apaingarriek, 6 m-ra arte (pabiloiaren altueran posible denean) standaren barrurantz metro bat sartu beharko da.

2.12b eskema



#### 47. art.-Diseinu libreko standak eraikitzea eta apaintzea

- Standa modu librean apaindu nahi duten erakusketariak apainketa-proiektua (altxaerak, planta eta perspektiba kotatua) BECen Zerbitzu Teknikoen departamentura bidali beharko dute, hark onetsi dezan.
- Proiektua honako formatuetako batean bidaliko da: \*.jpg, \*.pdf, \*.gif, \*.tif edo CAD-en edozein beste ohiko formatu. Proiektua onartuta egon behar da muntatzen hasteko.
- Proiektua aurkezteko epemuga muntatzen hasi baino hile batekoa da.
- Onartutako planoaren eta muntatutakoaren artean desberdintasunak dituzten proiektuak geldiarazi egingo dira.
- Bi solairu dituzten edo, haien egitura-ezaugarri bereziengatik, segurtasun bermeak behar dituzten standek Euskal Herriko Arkitektoen edo Aparejadoreen Elkargoak (edo eskumena duen beste teknikari batek) bisatutako proiektua eta obra-amaierako ziurtagiria izan beharko dute muntatzea hasi baino hilabete lehenago. Ziurtagirian edo proiektuan neurriak, erabilera karga eta edukia zehaztu beharko dira, eta bertan zehaztutako mugak errespetatzea erakusketariaren erantzukizuna izango da soilik.
- Araudi bera erabiliko da haien ezaugarriengatik pertsonentzat arriskutsuak izan daitezkeen zintzilak jarriko diren elementuekin.

#### 48. art.- Sabaien instalazioak

- Erakusketariak haien standak sabai batekin estali ahaliko dute suteen aurka babesteko baldintza teknikoak eta segurtasun araudia betetzen baldin badute.
- Sabaiak goiko solairuetatik ikus daitezkeela kontuan izanik, akabera txukuna izan beharko dute. Multzoaren ikuspegia atsegina izan dadin, Zerbitzu Teknikoen Departamentuak sabaien akaberan zerbait aldatzea eska dezake, erakusketariaren gastuak areagotzen baditu ere.

- Sabaia duten standek ezin dute sabaia erabat itxita eduki.

#### **49. art.- Aireko egiturak**

- BECeKo Segurtasun eta Lan Arriskuen Prebentzio Araudia beteaz, Pabiloien sabaitik objekturen bat eseki nahi duen enpresak BECi eskatu beharko diote baimena online dendaren bitartez.
- Aireko egiturak instalatu daitezke, argiztapen sistemen euskarri gisa erabiltzeko, 6 m baino gehiagoko altuera ez badute eta standaren perimetrorantz metro bat sartuta badaude, eta erakusketariak kasuari dagokion instalazio elektriko egokia badu.

Edozein kasutan ere, 2.12a eta 2.12b eskemak jarraitu behar dira.

- Nahi izanez gero, errotulazio-elementu txikiak egitura horietatik zintzilik jartzeko baimena ere emango zaie, errotulazio elementuen multzoaren eta standaren hormen edo erakuntzen artean azoka bere osotasunean ikustea eragozten ez duen lekua uzten bada. Bi kasuetan, dagokion Zerbitzu Teknikoen Departamentuaren baimena lortu behar da (muntatzen hasi baino 30 egun lehenago bietan ere).

#### **50. art.- Hormak, zutabeak eta zoruak**

- Erabat debekatuta dago standa eraikitzeko azokaren barrutiaren zorua, horma eta zutabeak margotzea edo haietan takoak edo iltzeak jartzea, erretanak egitea eta abar.
- Zoladurak ezingo dira zulatu.
- Makinak, ahal den heinean, zola duten motelgailu bidez finkatuko dira.
- Zulaketak saihestezinak badira, Zerbitzuen Departamentuarekin jarri harremanetan. Hark zehaztuko du bere bideragarritasuna eta konponketen zenbatekoa.
- Aldez aurreko baimenik gabe zoladuran zuloak egingo dituen erakusketari/apaintzaileari konponketaren zenbatekoa gehi egindako zulaketari dagokion penalizazioa fakturatuko zaio.
- Moketa bi aldeko zerrenda itsaskorrez finkatuko da zorura, kentzen denean hondakinik uzten ez duena.
- Zoruan instalazioak egongo direnez, guztiz debekatuta dago ur kantitate handiak lurtean metatzea.
- Zerbitzuen hornikuntzako kanaletako tapak ezingo dira erabili karga puntualen euskarri gisa.
- Standa eraikitzeko lorategiak, iturriak, lur edo are mordoak jarri beharko balira, zorutik ongi isolatuta geldid dadin eraikiko dira eta hura garbitzea ez saihesteko. Aldez aurretik eskatu beharko da baimena.

#### **51. art.- Sabaira ainguratzea (rigging)**

- Esleitutako pabiloiaren sabaitik apaingarri, argiztapen, ikus-entzunezko elementu edo erakustaldiko elementuren bat zintzilikatu nahi duen erakusketari edo dekoratzaile orok hari dagokion eskakizuna bidali beharko du BECeKo Zerbitzuen Departamentura eta han aztertuko dute egindako eskaera, eta eskaera hori onartu edo baztertuko dute. Onartzuz gero, beharrezkoak diren ezaugarriak eta lotzeko behar diren puntuak adieraziko dituzte.
- Sabaira lotutako elementu guztiak muntatzen diren lehenengo egunean igoko dira eta desmuntatzen diren azken egunean desmuntatuko dira.

#### **52. art.- Konexioak**

##### **a) WiFi instalatzeko baimena eskatzea**

BECek eskaerak aztertuko ditu eta erakusketaria informatuko du. BECen irizpide teknikoaren arabera erakusketariaren beharrak estali ahal ez badira, edo erakusketariak ezin badu azaldu, arrazoi teknikoen bidez, zergatik BECek ez duen bere beharra asetzen, baimena ukatuko zaio. Halaber, BECek eskaera bat ukatzeko eskubidea izango du, instalatuko den sareak, erakusketariak aldeztu aurretik deskribatu duenak hain zuzen ere, beste erakusketarien zerbitzuaren kalitatea kaltetu ahal badu, BECen irizpide teknikoaren arabera. Aurrekoaren kalterik gabe, aplikazio irizpide gisa, sarearen identifikatzaile publikoak (SSID) erakusketaria edo standak identifikatuko duen izena izan behar du.

Edonola ere, xede horretarako baimena ematen bada salbu, erakusketariei edota bisitariei Internetera doan sartzeko aukera emango dien WIFI sarbide-puntuak instalatzea debekatuta dago.

Erakusketari batek baimendu ez den edo baimendutakoa ez den beste konfigurazio bat duen sarea hedatzen badu, BEC erakusketariarekin jarriko da harremanetan sarea berehala itzali dezan edo baimendutako parametroekin berriro konfiguratu dezan. Erakusketariak ez badu agindua betetzen, edo araudia berriro ere hausten badu, BECek Internetera sartzeko zerbitzua deskonektatu dezake.

BECek funtzionamendu egokia bakarrik bermatuko die 5GHz-ko bandan konektatzea baimentzen duten gailuen erabiltzaileei; hau da, 2,4 GHz-ko WIFI bandan funtzionatzen duten gailuetan ezingo da zerbitzu-maila egokia ziurtatu.

#### **b) Beste konexio batzuk**

- Standak hartzen duen lekuan dauden atea, kanalizazioak (ura/hustubidea, suteen aurkako sistema), etab., igarotzeko libre utziko dira.
- Hari elektrikoak edo ura eramaten duten gidak euskarri malguekin egingo dira. Guztiz debekatuta daude elementu zurrunkak.
- Elektrizitate-hodiak edo uraren antolatzaileek kasu bakoitzarentzat adierazitako lekuetatik eramango dira dagozkien hartuneetara.
- Hustubideen konexio guztiak horretarako dauden puntuetara eraman eta han egin beharko dira, antolatzaileek zehazten duten moduan, eta ezingo dira hodi zurrunkak erabili kanaleten barruan.
- Sare orokorrerako konexioak BECeko langileek egingo dituzte. Kanaletetatik doazen zerbitzu guztiak gainazaletik banatuko dira kanaletatik eskatu den standaren punturaino.
- Kanaletan dauden konexio elektrikoak 32 eta 63 amp-ko oinarriak dira. Standaren instalatzaileak konektatuko ditu BECek baimendutako langileen oniritziarekin, korrante industrialeko hartuneen bitartez, 63 amp. arteko EN 60309-IEC 309 380 v. – 50 hz 3 P+N+T arauak beteaz. Potentzia handiagoentzat, BECek beharko diren gailuen eta eroaleen ezaugarriak eta hori burutzeko prozedura aztertuko ditu.
- Erakusketarien CETAC hartuneetan gehienezko zirkuitu laburren intentsitatea 9,79 KA da, hau da, 10 KA baino gutxiagokoa. Beraz, erakusketarien koadro elektrikoek 10KA zirkuitu laburreko intentsitate baterako izan behar dute.

#### **53. art.- Erakusketa**

- Martxan dauden makina edo elementu mekaniko guztiak ahalik eta babes gehien edukiko dituzte beste erakusketariei edo ikusleei istripuak saihesteko. Gainera, segurtasun eta lan osasun arloan indarrean dagoen araudia bete beharko dute, beraz, martxan egongo diren makina edo elementu mekaniko guztiak langileak probak edo erakusketak egitera doazenean dituzten arriskuak ebaluatuta edukiko dituzte. Besteek (bisitariek) izan ditzaketen arriskuak ere ebaluatuta behar dira.

Muntatze eta desmuntatze kasuetan berdin egingo da. Langileak zein Eskudun Agintariek jakin dezaten, beti edukiko dira erabilgarri eta eskura arriskuen ebaluazioari dagozkien dokumentuak, araudi honekin batera doan honen bezalakoak.

Eskudun agintariek, eta baita antolatzaileek ere, aipaturiko dokumentuak ez dituzten edo osorik ez dituzten makinak edo elementu mekanikoen funtzionamendua debekatu dezakete.

- Makinen eta elementu mekanikoen demostrazio guztiak enpresa erakusketariaren arduradun baten aurrean egingo dira beti. Segurtasun-neurri egokiak hartuko dira bertan dauden segurtasuna bermatzeko; BECek ez du erantzungo erreklamazio edo istripuen aurrean.

- Hozteko, apaintzeko eta beste helburuetarako ur zirkuitu guztiak itxiak izan behar dira.

- Enpresa erakusketariak gasa erabiltzeko (butanoa, oxigenoa edo parekoak) enpresa banatzailearen erabilera eta mantentze kontratua beharrezkoa izango da.

Instalazioa beharrezkoa bada, Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Sailak baimendutako enpresa batek egin beharko du eta enpresa horrek emandako ziurtagiria eduki behar da.

Halako materialik ezingo da biltegitatu.

- Erakusketariak gehieneko soinuari dagokion araudia bete beharko dute. Soinua ezingo da 60 dezibelio baino gehiagokoa izan, standaren ertzean neurtuta.

Arestian aipaturiko guztiaren ondoriozko erantzukizunak erakusketariarenak izango dira eta BEC erantzukizun horretatik at egongo da.

#### **54. art.- Araudi tekniko-elektroa**

##### *541 Aurretiazko zehaztapenak*

- BILBAO EXHIBITION CENTRE-ko (BEC) instalazioek bi motatako energia elektroa hornitzen diete erakusketariei:

- MONOFASIKOA: Faseen eta neutroaren arteko 220V/50 Hz-ko korrante alternoa.

- TRIFASIKOA: Faseen arteko 3 x 380V/50 Hz-ko korrante alternoa.

Beste hornikuntza guztiak erakusketariak berak kudeatuko ditu Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Delegazioak baimendutako Instalatzaile baten bitartez.

- Erakusketariak BILBAO EXHIBITION CENTRE-ri (BEC) eman beharko dio Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak emandako B.-T.-n instalazio elektrokoren ziurtagiria.

- Antolatzaileek standei konexio bana emango die, eskatutako potentziarekin bateragarria, sare orokorretik gertuen dagoen puntutik, eta energia hornikuntza mugatu ahal izango du gainkargak saihesteko edo instalazioko segurtasuna bermatzeko.

BILBAO EXHIBITION CENTRE-k (BEC) badu Baimendutako Instalatzaileen Zerbitzu Elektroa. Hura kontratatzeko, dagokion eskakizuna bete behar da.

- Standei energia elektrokoren hornikuntza erabat moztuko zaie egunero azokaren lanaldia bukatutakoan, aldeztatik aurkakoa egiteko eskaera egin duten Erakusketarien kasuan izan ezik (eguneko 24 orduetan elektrizitatea behar duten makinak dituztenak, esaterako).

##### *542 Hargunea*

- Hargune instalazioak BECen langileek egingo dituzte, eta standarenak diren instalazioak erakusketariak berak egin beharko ditu. Lan horiek Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Ordezkaritzak baimendutako Instalatzaile batek egingo ditu nahitaez.

- Harguneen eroaleak, sare orokorretik standaren babes-koadroraino, non konexiorik ezingo diren egin, honelakoak izango dira:
  - 1.000 V-eko isolamendua, kanalizazio blindatuetan.
- Hargune guztiak trifasikoan hornituko dira.
- BECek eskatutako potentziaren arabera fakturatuko ditu harguneak.

#### 543 Instalazioaren erabilera

- Erakusketariak ezingo du standaren instalazio elektrikoan aldaketarik egin eta instalazioan egindako aldaketen edo hura gaizki erabiltzearen ondoriozko kalteen erantzule izango da.

#### 544 Instalazioaren materiala eta intentsitateak

- Stand bakoitzak berez itzaltzen den materialeko panel orokorra edukiko du, eta leku seguruan, eskuragarrian eta bisitarietatik urrunduta jarriko da.
- Standaren aginte eta babes panela giltzapetuta egongo da eta beti egongo da itxita.
- Instalazioa egiteko baimendutako pertsonak bakarrik edukiko du giltza, eta ondorioz, berak bakarrik manipulatu du barrukoa.
- Gutxienez osagai hauek edukiko ditu panelak:
  - Eten omnipolarreko etengailu orokor automatiko magnetotermikoa.
  - Disjuntorea.
  - Horretatik irteten diren linea edo zirkuitu bezainbeste etengailu automatiko magnetotermiko bipolar edo tripolarra.
- Etengailu Orokor Magnetotermikoaren, disjuntorearen eta Etengailu Automatiko Magnetotermikoen intentsitateak, eta mahuken sekzioak potentziaren arabera izango dira.

A-Tentsioa: 220 V monofásikoa

Magnetotermikoa: II (bipolarra)

Disjuntorea: 30 MA sentsibilitatea

B-Tentsioa 3 x 380 V Trif + N

Magnetotermikoa IV (tetrapolarra)

Disjuntore diferentziala: 30 MA 63<sup>a</sup> 300

MAraino 63 Atik aurrera

#### 545 Eroaleak eta hartuneak

- Linea orokorren eta banaketa-zirkuituen instalazioa, argiztapenarena zein argi-indarrarena, isolatutako 1000 V-eko eta gutxienez 2,5 mm<sup>2</sup>-ko sekzioa duten eroale isolatuekin egingo dira.
- Debehatuta daude araututako borneekin egiten ez diren eta tapa duten kutxen barruan, torlojuekin edo presioz itxitako kutxetan egindako konexio irmoak eta standaren hormara edo sabaira finkatutako eroaleen arteko konexioak.
- Halaber, debehatuta dago isolamendu txikiko eroale paraleloak erabiltzea, baita entxufe beraren hargunetik hainbat irteera jartzea.
- 3 KW-tik gorako entxufe eta hargune guztiak, zuzenean edo bereiz, panel orokorretik hornituko dira, eta potentziaren proportzioko etengailu automatiko magnetotermiko batez babestuko dira.
- Instalazio orok izango du dagokien lur-konexioa, argi-puntuetan nahiz entxufe edo argi-indarraren harguneetan, 16 mm<sup>2</sup> arteko sekzioarekin fase aktiboetan eta sekzio erdiarekin 16 mm<sup>2</sup>-tik aurrera.



• Standen egitura metalikoak lurrera konektatuko dira, eta instalazioa BILBAO EXHIBITION CENTRE-k (BEC) baimendutako langileek onartu beharko dute.

#### 54.6 Hargailuak

- Hargailu eramangarriek konexio oso malgua izan behar dute, inoiz ez 2 m baino luzeagoa.
- Ez dira onartuko kosinua  $\langle p \rangle < 0,95$  duten eta zuzenketa ekiporik ez duten hargailuak.
- 2 m baino beherago dauden lanpara halogenoek haiekin zuzenean kontaktua saihestuko duen babesa edukiko dute.

#### 54.7 Motoreak

- 5 Z.P. baino gehiagoko motorrek intentsitate murriztuko abiarazte sistema edukiko dute.
- Ez da bateria edo metagailurik barrutiaren barruan birkargatzea onartuko. BILBAO EXHIBITION CENTRE-k (BEC) baimendutako langileek onartu beharko dute standetan horrelakorik jartzea, eta derrigorrez jarri beharko da "Erretzea debekatuta/Surik ez hurbildu" kartela.

#### 54.8 Instalazioaren bukaera

- Instalatzaileak, lana bukatzean, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Ordezkaritzan aurkeztuko ditu lanaren bukaera onartzeko behar diren agiriak eta buletina behar bezala sinatuta jasoko du.
- Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Ordezkaritzako Teknikariak nahiz BILBAO EXHIBITION CENTRE-ko (BEC) Zerbitzu Elektrikoko langileek beharrezkotzat jotzen dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte, eta instalazioan irregulartasunen bat aurkitzen badute, instalazioa ez konektatzea edo hori etetea erabaki ahal izango dute.

#### 54.9 Betebeharrak

- Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Ordezkaritzak xedaturiko Behe Tentsioko Araudia guztiz bete behar da, instalazio elektrikoari dagokionez nahiz dagokion panelarekin babestu beharreko tresna elektriko eramangarrien erabilerari dagokionez, 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuarekin bat etortzeko.

#### 54.10 Erantzukizun salbuespenak

- Energia Zerbitzu guztiak BILBAO EXHIBITION CENTRE-k (BEC) azpikontratatzan ditu, eta ondorioz, elektrizitate-hornikuntzan etenik gertatuz gero, erantzukizunetatik salbuetsita geratuko da.
- Hornikuntzaren akatsak saihesteko neurri gisa, erakusketariak kasu bakoitzari dagozkion segurtasun sistemen produktuak edo makinak jarri beharko ditu instalazioetan.

## IV.- BESTE XEDAPEN BATZUK

### 55. art.- Erreklamazioak

Erakusketarien artean sor daitekeen edozein gatazkaren berri eman beharko zaio, idatziz, Azokaren Zuzendaritzari, eta hark azokaren interesen alde ebatziko du.

Era berean, eta erakundearen aurrean erreklamazioak egiteko, BECek bezeroen eskura ditu erreklamazio-liburuak.

### 56. art.- Datu pertsonalen babesa

Zure datu pertsonalak tratatzearen erantzulea Bilbao Exhibition Centre, S.A. ("BEC") da (egoitza soziala: Azkue kalea 1, 48902 Ansio-Barakaldo).

Zure datuak tratatzeko helburuak hauek dira: (i) zure parte hartzea eta, honen ondorioz, zurekin sortzen den kontratu-harremana kudeatzea eta (ii) zure interesekoak izan litezkeen etorkizuneko sektorearekin lotutako ekitaldien berri ematea.

Emandako datu pertsonalak BECek gordeko ditu azoka amaitu arte, edo hala badagokio, helburu horrekin aurka egiteko eskubidea erabili arte (ii). Une horretatik aurrera, BECek zure datuak gordeko ditu sei urteko epean zehar edo bakoitzaren erantzukizunekin lotutako ekintzen iraungitze-data igaro arte, aurreko bien arteko eperik luzeena hartuz.

Zure datuen tratamendurako legitimazio-arrazoia, (i) helbururako, BECen eta zure arteko harreman juridikoaren exekuzioa da eta, (ii) helbururako, BECen interes legitimoa, zeina BECen egiten diren sektorearekin erlazioatutako eta hartzaillearen interesekoak diren ekitaldiei buruzko informazioa ematean baitatza.

BECek ez dizkie zure datuak hirugarrenei lagako, legez derrigortuta egon ezean.

Zure datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, horien tratamendua aurkaratzeko, emandako baimena baliogabetzeko (esaterako, merkataritza-informazioa jasotzeari uzteko) eta tratamenduaren mugaketa edo datuen mugikortasuna eskatzeko eskubidea izango duzu. Aurreko eskubideak baliatu ahal izateko beharrezkoak diren idatzizko eskaerak bidali ahalko dituzu, zure nortasuna egiaztatuta, [protecciondedatos@bec.eu](mailto:protecciondedatos@bec.eu) helbidera edo posta bidez BECen egoitza sozialera (datuen babeserako sailera zuzendua). Halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (datuen babeserako eskumena duen kontrol-agintaritza) erreklamazio bat aurkezteko eskubidea izango duzu. Informazio gehiago: [www.aepd.es](http://www.aepd.es).

Hirugarrenen datuak ematen badituzu, BECeko harremanak dirauen bitartean (adibidez, langileen, kontratisten edo kanpoko zerbitzu hornitzaileen datuak), hirugarren horiei jakinarazpen honen edukiaren berri egoki eman diozula, eta kasua balitz, onspena eskatu diozula aitortzen eta bermatzen duzu. Zentsu honetan, BECek ez du inolako jarduketa gehigarririk egin beharko.

#### **57. art.- Legedi aplikagarria eta jurisdikzioa**

Parte Hartzeko Araudi Orokor hau Espainiako legeen arabera arautuko da. Parte hartzaileek erabaki dute baldintza hauek edo/eta horiekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gainerako agiriak betearaztearen edo interpretaztearen ondorioz auzi, desadostasun, arazo edo erreklamazio oro Bilboko epaitegi eta auzitegien jurisdikzio eskusiboaren mende jartzea.